

Kanalak

Komunikazio kanalak:

Komunikatzeko eta pertsona gehiagorengana iristeko, beharrezkoa da kanal batzuk izatea gure publiko motari dagokionez. Gure kasuan, gure enpresa animalientzako hotel bat da, maskotak dituzten pertsona guztiei zuzenduta, eta animalia-konpainia zerbitzua ere du, bereziki hirugarren adineko pertsonen zuzenduta haien bakardadearekin amaitzeko.

Lehenik eta behin, publizitate-kartel bat erabiliko dugu, Barakaldoko udalerrri osoan zehar jarriko duguna. Barakaldon dauden puntu estrategiko batzuk erabiliko ditugu ziurtatzeko ahalik eta jende gehien ikusten dutela. Hori dela eta, aukera hobe gure kartela jartzeko hainbat izango dira; autobus geltokietan, metroan, udalan... Horrela, El Regaton dagoen gure egoitzaren berri duten Barakaldoko bizilagunen arreta deituko dugu. (Kartela dokumentuaren amaieran txertatuta dago).

Bestalde, akordio bat izango dugu Barakaldoko ikastetxeekin, hitzaldiak emateko eta geure burua ezagutarazteko. Gure enpresaren publizitatea ikastetxeetan egiten badugu, adin guztietara iritsiko gara. Alde batetik, gazteenengana iristen gara beren eskolara goazelako. Bestalde, familetara iritsiko gara, haurrek etxean kontatuko baitiete. Eta, azkenik, haur horiek ikusten badute beren aitona-amonak gure zerbitzua behar dutelaren egoeran daudela, aitona-amonei esan ahal diote gure enpresara iritsi ahal izateko.

Teknologiari dagokionez, gazteenak erakartzeko, sare sozialak erabiliko ditugu; konkretuki instagram kontu bat. Gure sare sozialetan informazioa argitaratzeari esker, bezero berriek konfiantza izan dezakete gure zerbitzua fidatzekoa dela ikustean. Bertan gure hotelari, eskaintzei, berrikuntzei, instalazioei eta abarri buruzko albiste guztiak iragarriko ditugu. Horrez gain, internet bidez hitz egiteko modurik onena duten bezeroekin harremanetan jartzeko mezuak ere zabalik izango ditugu.

Instagram kontua: **@pata_y_abrazo**

Aldi berean, Web-orrialde bat izango dugu bai egoitzaren informazioarekin, bai nagusiei konpainia egiteko zerbitzuaren informazioarekin. Web orrialdearen beste funtzio bat erreserbak online egitea da, haien maskotak gure egoitzara etortzea errezagoa izan dadin. Honen helburu nagusia jende gehiago gure enpresa ezagutzea da biztanleria gehienak mugikorrak edo ordenagailuak dituenek, modu on bat baita bezero gehiago eskuratzeko. Horretarako interneten gure enpresa bilatu behar dute link honen bidez: <https://lumartinezro.wixsite.com/pata-y-abrazo>. Gainera, link hau gure sare sozialetan egongo da Instragramen bidez ezagutzen gaituen jendea Web-orrialdera heldu ahal izateko.

Azkenik, publizitatea irabazteko beste modu bat erabiliko dugu: iragarkiak. Gaur egun, biztanleria osoa ikusten edota entzuten dituzte iragarkiak; bai telebistan bai irratan. Horrela, lortu dezakegu gure bezero guztiei gure enpresaren berri ahilegatzea erosotasun handiz.

Banaketa kanalak:

Gure enpresak izango dituen bezero guztiak aztertuz, kanal desberdinak erabiliko ditugu. Gure enpresak duen gauza on bat da gure zerbitzua eskaini diezaiokegula maskotaren bat duen edonori, adina kontuan hartu gabe; horregatik, hainbat metodo erabili behar ditugu gure bezeroak erakartzeko eta mantentzeko. Gazteenentzat, adibidez, internetekin zerikusia duen guztia erabiliko dugu. Bestalde, adineko jendearengana iristeko, teknologiarekin zerikusirik ez duen metodo bat behar dugu.

Bi publikorengana jo nahi dugu. Alde batetik, adinekoei, kontratatu eta gure maskotekin denbora pasa dezaten, eta, bestetik, maskotak dituzten pertsonen, gure hotelera maskotak ekar diezazkiguten.

Adinekoengana iristeko: Udalarekin hitz egingo dugu hitzaldiak emateko eta egoitzetan ezagutarazteko. Halaber, gure posterra jarriko dugu kaleetan, bakarrik sentitzen diren eta gure txakurrekin denbora pasatu nahi duten pertsonen arreta erakar dezan.

Adinekoengana jotzeko, gure maskotak eramango ditugu pertsonalki. Horrela, adinekoek kontaktuan egongo dira animaliekin eta egoitzetan ariketa ezberdinak egingo dituzte ez aspertzeko. Gu bertan egongo gara maskoten eta pertsonen erlazioa kontrolatzen. Zerbitzu honek onurak ekarri daiteke biztanlerion bizitzan eta gainera, zerbitzu berezi honen bitartez, gure enpresa handitzea eta ezagutaraztea egin dezakegu. Bestalde, gure maskoten osasun erregularraren jarraipenak lagunduko digu erakusten gure maskotak osasuntsu daudela eta bezeroak adinekoak izan arren ez dutela arazorik izango haiekin.

Bestalde, jendeak gure zerbitzua nahiko du, gure txakurrak desberdinak direlako eta adineko bakoitzaren beharretara egokitzen direlako. Adibidez, pertsona bat gurpil-aulkian badago eta triste badago mugitu ezin delako, oso txakur aktiboak ditugu, eta haiekin jolastu daitezke aktibo senti daitezen. Bestalde, hirugarren adineko pertsona batzuek estres handia badute eta erlaxatu behar badute, maskota lasaiagoak ere baditugu, lasaitzen lagun diezaieketenak. Horregatik, gure zerbitzua kontratatzen duen adinekoren batek behar zehatzen bat badu, maskota ez da konpainia bat bakarrik izango, baizik eta laguntza bat.

Maskotak dituzten bezeroengana iristeko iristeko: Maskotak daukaten jendeak guran konfiantza izatea nahi dugu, bere txakurrak gurekin ekartzeko; horretarako, webgune bat sortu dugu, behar luketen informazio guztia jasoko duena: zer garen, gure tarifak, ordutegiak, gure instalazioak, aurreko bezeroen esperientziak... Gainera, sare sozialak izango ditugu gazteenengana iristeko. Gure instagramean, gure bezeroek beren erreseinekin partekatzen dizkiguten argazkiak igoko ditugu; horrela, denek ikusi ahal izango dituzte zer instalazio ditugun eta non egongo diren maskotak.

Bestalde, gure enpresa dagoen tokiari esker, bezeroak lortuko ditugu. Beste txakur-hotel batzuk ez bezala, gurea naturaz inguratuta dago, eta han txakurrek askoz leku gehiago dute jolasteko eta osasuntsuago egongo dira. Gaur egun, pertsonak asko arduratzen dira produktuak eta zerbitzuak naturalak eta ekologikoak direlako, eta gure enpresak zerbitzu mota hori eskaintzen du.



PATA Y ABRAZO

Pasa el rato con nuestros perros y gatos!




640306356



pata_y_abrazo



lumartinezro.wixsite.com/pata-y-abrazo



📍 El Regato, Barakaldo 48903

